

## **TALDEKIDEEN ETA PROIEKTUAREN AURKEZPENA**

Gu El Regato ikastetxeko, 2. Batxilergoko, bost ikasle gara, Irune Arnáez, Jone Campo, Sandra Casas, Itxaso González eta Naiara Patino. Startinnova proiektuan parte hartzea erabaki dugu, hori dela eta sortu dugun enpresa Basoa du izena.

Basoa izendatzea erabaki dugu gure helburua ingurumena zaintzeak erabateko garrantzia duelako, eta batez ere erabilera bakarreko plastikoaren kontsumoa murriztu nahiko genuke. Gaur egun, enpresa batzuk plastikozko mahai tresnen erabilera saihesteko ordezkari bat bilatzen ari dira, jan ahal diren mahai tresnak edota biodegradagarriak diren mahai tresnak ekoiztuz esate baterako. Baina zoritxarrez, enpresa hauen produktuak ez dira oso ezagunak, hortaz gure enpresak eskaintzen dituen diseinuak aplikatzean erakargarriagoak izatea lortuko dugu, beraz enpresa ekologista hauek bezero berriak izango litzateke eta horrela plastikoaren kontsumoa murriztuko litzateke.